



AISIALDIKO BEGIRALE TITULUA EUSKERAZ LORTZEKO IKASTARORAKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA

1.- HELBURUA

Azaroaren 2ko 419/1994 DEKRETUAK, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Ihardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duenak bere atal azalgarrian onartzen du, trebaketa egokia eta berariazkoa duen hezitzaile talde batek jarraian eta etengabean iharduteak haur eta gazteen aisialdi heziketan oso garrantzi handikoa dela jakinik, aintzakotzat hartu beharrekoa da hezkuntza alorrean trebaketa eskola horiek betetzen duten zeregin soziala, era horretara, aisialdiaren bitartez gizarte eta elkarte mugimenduaren lanari lagundu eta eusten baitzaio. Esanguratsua da eskoletako gehienak bolondresak izatea, batez ere begiraleak, horien artean, zuzendaria, koordinatzaile eta suspertzaile izanik.

Mendaroko udalak medio propiorik ez duenez, eta kontutan izanda begiraleen funtzio soziala, Mendaroko udalak Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulua lortzeko ikastaroak bultzatzea du helburu, diru laguntza hauen bidez.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Mendaron erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 12 hilabete lehenagotik.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.
- Laguntza jasotzeko TITULUA edo bere ordezkotza Ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Bestalde, azaroaren 2ko 419/1994 DEKRETUA-ren 9. artikulua araberak:
 - Haur eta Gazteen Aisialdirako Heziketa Ihardueretarako **Begirale izateko** trebaketa ikastaroetan parte hartu ahal izateko, interesatuek 18 urtetik gora izan beharko dute edo 18 urte bete beharko dituzte matrikulazio urtearen barruan eta, beti ere, praktikak edo, hala badagokio, eskolak eskatutako bestelako zeregin osagarriak egiten hasi baino lehenago izan beharko dute aipatutako adin hori.
 - Haur eta Gazteen Aisialdirako Heziketa Ihardueretarako **Zuzendari izateko** trebaketa ikastaroetan parte hartu ahal izateko, kasuan kasu eskolak berak eska ditzakeen baldintza osagarriez gainera, honako betebeharrak errespetatu beharko dituzte interesatuek:
 - a) 21 urtetik gora izatea, edo matrikulazio urte barruan adin hori izatea.
 - b) Ikastaro hasieran, Haur eta Gazteen Aisialdirako Heziketa Ihardueretarako Begirale izateko agiri ofizialaren jabe izatea.
 - c) Bigarren Heziketaldia edo horren baliokide den beste mailaren bat gaindituta izatea edo, kanpotik etorri gero, jatorrizko estatuko hezkuntza sisteman horren pareko dena.

3.- FINANTZIAZIOA

Aisialdiko Begirale titulua Euskaraz lortzeko laguntza hauek Udal aurrekontuko "1.0300.480.01.330.00 aisialdi monitore heziketarako BEKAK" partidaren aurrekontuaren bidez.

4.- ESKAERAK

Eskaerak derrigorrez Kultura Zerbitzuak emandako inprimakian aurkeztu beharko dira Udaletxean, irailaren 15a baino lehen, behar bezala beteta eta sinatuta, ondorengo dokumentazioarekin batera:



- Matrikularen ordainagiria
- TITULUA edo bere ordezkoko Ziurtagiria
- Erakunde publikoei egindako diru laguntza eskaera, zein jadanik jasotako diru laguntzen gaineko zinpeko aitortpena.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako dirulaguntzak jasotzeko debeku-kausen pean ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileek bere horretan onartzen dituztela araudi honetan ezarritako baldintzak. Ez da beste dokumentazio motarik onartuko.

5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Emango den laguntza, matrikularen kostuaren %50koa izango da, eta gehienez 250€koa. Partidan izendatutako kopurua proportzionalki eskaera guztien artean banatuko da. Kasu baten ere ez da diruz lagunduko bestelako gasturik: bidai gastuak eta abar. Diru laguntza hauek Irailetik abuztura doan ikasturteko aisialdirako begirale/zuzendari ikastaroa egin dutenei emango zaie.

6.- ERABAKIA

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Kultura zerbitzuak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko. Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da. Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru laguntzen informazioa udal iragarki taulan argitaratuko da. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean hartuko da erabakia. Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

7.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Udalak erabakia hartutakoan, transferentzia bidez, bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa osorik ordainduko du.

8.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberarengatik jasotako beste edozein dirulaguntzarekin. Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

9.- ARAUTEGI HONEN INTERPRETAZIOA

Arautegi honen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu.

10.- ZUZENBIDE OSAGARRIA

Arautegi honetan espreski zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 legea, dirulaguntzei buruzkoa, aplikatuko da.

Mendaro, 2018ko otsailaren 12an.

ALKATEAK